# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia | Iruñean, 1997ko ekainaren 6a | 41 ZK.

## A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—Nafarroako estatistikari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (2. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Euskaltegi publiko eta pribatuetako ikasle kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
—Vianako eta Tuterako ikastolen legeztapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Partidu Popular eta alderdi nazionalisten arteko itunari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Nafarroako ubideari buruzko galdera (bideragarritasun ekonomikoa, ur-horniduraren abantailak, etab.). Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
—Nafarroako Ondare Historiko eta Artistikoko ondasun higigarrien esleipen eta zaharberritzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
—UZEIrekin (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearekin) izenpetutako lankidetza-hitzarmenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Korrika 97ren antolatzeari Gobernuak ematen dion dirulaguntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Helduak alfabetatu eta euskalduntzeko ikastegi publikoen kostuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Liburutegi batzuk ixteko aurreikuspenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

I SAILA:

**Parlamentuko Jarduera:**

—1997ko maiatzean egindako bilerak (12. or.).
—Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko maiatzean sartu diren agirien zerrenda (14. or.).

**A Saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Nafarroako estatistikari buruzko Foru Lege proiektua

*AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluak ezarritakoa betez, Nafarroako estatistikari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu da. Proiektua 1997ko maiatzaren 12ko 33 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 2an.

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## 27. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

**1. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

27.2.b) artikulua ordezkatzeko emendakina.

Hurrengo esaldiaren ordez:

"– eragiketen gutxi-gorabeherako kostua."

Hauxe jarri:

"– eragiketen kostu balioetsia."

Zioak: Balioespenak azterketa zorrotza eskatzen du, gutxi-gorabehera emateak ez, ordea.

## 30. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

**2. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

30.1 eta 30.2 artikuluak ordezkatzeko emendakina.

1. puntuaren ordez hurrengoa jartzea:

"1. Nafarroako Estatistika Institutua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Organismo Autonomoa da, Nafarroarako interesgarria den estatistika jardueraz arduratzen dena."

Horrekin bat etortzearren, 2. puntutik "izaera eta" hitzak kendu dira.

Zioak: Institutuaren izaera 1. puntuan definitu nahi da eta, beraz, ez da Foru Dekretu baten bidez definitu beharrik izango, 2. puntuak proposatu bezala.

## 31. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

**3. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina, 31.2 artikuluan.

2. puntutik, "edo aldatu" hitzak kentzeko proposamena.

Zioak: Parlamentuak legea egiterakoan duen asmoa ezin da Gobernuaren Dekretu baten bitartez, besterik gabe, aldatu.

## 36. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

**4. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina, 36.2 k) eta l) artikuluan.

Hauexek kendu 2. puntutik: k) eta l) letrak.

Zioak: Ez da komeni kontseiluburuaren esku uztea Institutuko lau kide izendatzea.

**F Saila:**
**GALDERAK**

# Euskaltegi publiko eta pribatuetako ikasle kopuruari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Euskaltegi publiko eta pribatuetako ikasle kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 28ko 14. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Euskaltegi publiko eta pribatuetako ikasle kopuruari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

a.- Euskaltegi publikoak, Helduen Euskalduntzerako Zentroa, Miluze Euskaltegia:

1. lauhilabetekoa

| | | Taldeak | Ikasleak |
|---|---|---|---|
| | | 48 | 866 |
| (Mailak) | 1 | 13 | 263 |
| | 2 | 4 | 73 |
| | 3 | 5 | 94 |
| | 4 | 3 | 60 |
| | 5 | 6 | 103 |
| | 6 | 3 | 54 |
| | 7 | 2 | 39 |
| | 8 | 2 | 25 |
| Alfabetatzea | | 1 | 9 |
| EGA eta goi mailakoak | | 6 | 146 |

2. lauhilabetekoa

| | | Taldeak | Ikasleak |
|---|---|---|---|
| | | 48 | 856 |
| (Mailak) | 1 | 7 | 129 |
| | 2 | 8 | 152 |
| | 3 | 4 | 84 |
| | 4 | 5 | 88 |
| | 5 | 3 | 55 |
| | 6 | 5 | 93 |
| | 7 | 2 | 43 |
| | 8 | 3 | 56 |
| Alfabetatzea | | | |
| EGA eta goi mailakoak | | 11 | 132 |

b.- Euskaltegi pribatuak: Datuak eraskinetan ematen dira.

Hona 1996an eman ziren euskarazko klaseen ordu-kopurua, guztira:

Zentro publikoak

| | |
|---|---|
| 1. lauhilabetekoa: | 468 ordu |
| 2. lauhilabetekoa: | 357 ordu |
| Guztira: | 825 ordu |

Zentro pribatuak

| | |
|---|---|
| 1. hiruhilabetekoa, 95-96: | 31.221 ordu |
| 3. hiruhilabetekoa, 95-96: | 29.004 ordu |
| Uda 96: | 6.151 ordu |
| 1. hiruhilabetekoa, 96-97: | 28.296 ordu |
| Guztira: | 94.672 ordu |

Era berean, ikasleko eta orduko 76 pezetako laguntza eman zitzaien zentro pribatuei.

Euskaltegi pribatuetako ikasleak. 1996

| Euskaltegiaren izena | Erakunde antolatzailea | Tokia | Ikasleak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 95-96, 2. | 95-96, 3. | 96 UDA | 96-97, 1. |
| Agoitzeko AEK | AEK | Agoitz | 41 | 39 | 42 | 44 |
| Ahitzondo Euskaltegia | IKA | Betelu | 16 | 13 | | 9 |
| Arantza Barnetegia | AEK | Arantza | | | 25 | |
| Aratzuri Udala | Udala | Arazuri | | | | 13 |
| Arrigarai Euskaltegia | AEK | Tutera | 63 | 49 | 10 | 44 |
| Arrosadia Euskaltegia | AEK | Iruña | 152 | 150 | | 124 |
| Arturo Kanpion Euskaltegia | IKA | Iruña | 612 | 600 | 306 | 585 |
| Atarrabiako Gau-eskola | IKA | Atarrabia | 109 | 108 | 62 | 133 |
| Auzalor Euskaltegia | AEK | Berriozar | 65 | 20 | | 32 |
| Badoztaingo AEK | AEK | Badoztain | | | | 10 |
| Baztango AEK | AEK | Elizondo | 40 | 39 | | 29 |
| Beinat Etxepare Euskaltegia | AEK | Lizarra | 121 | 135 | 24 | 166 |
| Beriango AEK | AEK | Beriain | 10 | 12 | | 10 |
| Bianako Euskaltegia | AEK | Viana | 20 | 20 | | 10 |
| Bilatortako AEK | AEK | Villatuerta | 10 | 10 | | |
| Biurrun | Udala | Biurrun | 12 | 12 | | 12 |
| Bortzirietako Euskaltegia | IKA | Lesaka | 103 | 93 | | 115 |
| C. Salinas, UGT | Sindikatua | Altsasu | 21 | 31 | | 25 |
| Egillor | Elkartea | Ollo (Egillor) | 11 | 11 | | |
| ELA | Sindikatua | Iruña | 19 | 19 | | 13 |
| Elorri Euskaltegia | AEK | Mendillorri | 20 | 10 | | 43 |
| Ermitagaña-Mendebaldea | IKA | Iruña | 40 | 40 | | 40 |
| Etxarri-Aranatzko AEK | AEK | Etxarri-Aranatz | 28 | 28 | | |
| Etxauri | Udala | Etxauri | | | | 17 |
| Gareseko AEK | AEK | Gares | 20 | 19 | 11 | 11 |
| Garraldako AEK | AEK | Garralda | 32 | 32 | 21 | 32 |
| Goizuetako Euskaltegia | IKA | Goizueta | 8 | 8 | | |
| Haizea Elkartea | Elkartea | Barañain | 11 | 11 | | |
| Imotz-Basaburua Euskaltegia | IKA | Basaburua (Jauntsarats) | 18 | 16 | | 18 |
| Ipurtargi | AEK | Zizur Nagusia | 70 | 63 | | 73 |
| Irrintzi Euskaltegia | AEK | Iruña | 91 | 102 | 28 | 101 |
| Irunberriko AEK | AEK | Irunberri | | | | 32 |
| Iruñerri, UGT | Sindikatua | Iruña | | | | 20 |
| Iruñezar Euskaltegia | AEK | Iruña | 349 | 362 | 247 | 307 |
| Irurtzungo AEK | AEK | Irurtzun | 8 | 8 | | 10 |
| Itsasi Euskaltegia | AEK | Altsasu | 130 | 132 | 32 | 112 |
| Iturengo Barnetegia | AEK | Ituren | | | 73 | |
| Iturramako AEK | AEK | Iruña | 37 | 37 | | 34 |
| Kabanillaseko AEK | AEK | Cabanillas | 13 | 12 | 10 | 10 |
| Kadreitako AEK | AEK | Cadreita | | | | 17 |
| Kaskanteko AEK | AEK | Cascante | 18 | | | |
| Lakuntzako AEK Euskaltegia | AEK | Lakuntza | | | | |
| Larraungo Euskaltegia | IKA | Larraun (Lekunberri) | 25 | 16 | | 19 |

| Euskaltegiaren izena | Erakunde antolatzailea | Tokia | Ikasleak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 95-96, 2. | 95-96, 3. | 96 UDA | 96-97, 1. |
| Leitzako Euskaltegia | IKA | Leitza | 62 | 56 | | 63 |
| Malerrekako Euskaltegia | IKA | Doneztebe | 108 | 126 | 11 | 86 |
| Mendigorriako AEK | AEK | Mendigorria | | | | 12 |
| Mutiloabeitiko AEK | AEK | Aranguren (Mutiloa) | 10 | 11 | | 20 |
| Noaingo AEK | AEK | Noain | 20 | 20 | | 11 |
| Obanoseko AEK | AEK | Obanos | 11 | 10 | | 18 |
| Olatzeko AEK | AEK | Olatz | | | | 10 |
| Olaztiko AEK | AEK | Olazti | 22 | 22 | 20 | 20 |
| Oltza Zendeako | Udala | Oltza (Ororbia) | 24 | 24 | | 14 |
| Orkoien | Udala | Orkoien | 12 | 12 | | 13 |
| Orreaga | APYMA | Iruña | 49 | 49 | | 49 |
| Oteitzako AEK | AEK | Oteiza | 14 | 14 | | 10 |
| Otsagiko AEK | AEK | Otsagi | | | | 53 |
| Sahats | IKA | Barañain | 277 | 277 | 93 | 280 |
| San Adriango AEK | AEK | San Adrián | 10 | | | 13 |
| Tafallako AEK | AEK | Tafalla | 84 | 81 | 43 | 99 |
| Txantreako Euskaltegia | AEK | Iruña | 234 | 226 | 28 | 215 |
| Ultzamako AEK | AEK | Ultzama (Larraintzar) | 23 | 19 | | 21 |
| Xalbador Euskaltegia | AEK | Antsoain | 106 | 96 | 37 | 102 |
| Zaldualde | AEK | Burlata | 137 | 130 | 13 | 124 |
| Zangotzako AEK | AEK | Zangoza | 32 | 30 | | 33 |
| Ziordiko AEK Euskaltegia | AEK | Ziordia | | | | 20 |
| | | | 3.578 | 3.460 | 1.136 | 3.556 |

Gobernuak euskaltegi publiko eta pribatuendako dituen betebeharrak dagokion deialditik datoz (urriaren 16ko 419/96 Foru Agindua). Horren oinarrietan ezarri dute aipatu dirulaguntzak ordaindu egingo direla Aurrekontuei buruzko Legeko kontusaila agortu arte, laguntzen deialdietan eskuarki erabiltzen den estilo-klausula, bestalde. Beraz, Gobernuak ez du zorrik eragin.

Nafarroako aurrekontuetan horretarako ezarri den kopuru guztia exekutatu behar du Hezkuntza Departamentuak. Aipatu gehienezko kopuruak baldintzatu egiten ditu dirulaguntzetarako deialdien gainerako parametroak, edozein deialditan gertatzen den bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Erregelamenduko 184. artikuluaren eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 14a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Vianako eta Tuterako ikastolen legeztapenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Vianako eta Tuterako ikastolen legeztapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 28ko 14. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Vianako eta Tuterako ikastolen legeztapenari buruzko galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hau dio:

1. Gaur egun Vianako Erentzun ikastola legeztatzeko espedientea honelaxe dago: Ikastetxe Atalean dauden txostenen arabera, Erentzun ikastolak Haur Hezkuntzako bigarren zikloa emateko baldintzak betetzen ditu, baina ez Lehen Hezkuntza ematekoak. Behin betiko legeztatua izan dadin beharrezkoa da Hezkuntza Zuzendari Nagusiak ebazpena eman dezala. Lehen Hezkuntzari dagokionez, plano berriak aurkeztu beharko lituzke, emateko behar diren instalazioekin. Instalazioak egoki direla aldarrikatu eta gero, ikastolak behin betiko baimena eska lezake.

2. Fontellasen helbidea duen Argia ikastolari dagokionez, Ikastetxe Atalean dauden txostenen arabera, ikastolak Haur eta Lehen Hezkuntza lehenengo zikloa emateko baldintzak biltzen ditu, baina ez DBH ematekoak. Behin betiko legeztatua izan dadin beharrezkoa da Hezkuntza Zuzendari Nagusiak ebazpena eman dezala. DBH delakoari dagokionez, plano berriak aurkeztu beharko lituzke, emateko behar diren instalazioekin. Instalazioak egoki direla aldarrikatu eta gero, ikastolak behin betiko baimena eska lezake.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduk 184 eta hurrengo artikuluetan ezarririkoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko martxoaren 20a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Partidu Popular eta alderdi nazionalisten arteko itunari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Partidu Popular eta alderdi nazionalisten arteko itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Juan Cruz Alli Aranguren Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak Mosquera Unidad Alavesako Idazkari Nagusi jaunaren aitorpenei buruz eginiko galdera, idatzizko erantzuna eskatu duena, dela eta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarririkoa betetetzeko asmoz, erantzun hau igortzen dizut.

Mosquera jaunak ez bestek du bere aitorpenen erantzukizuna eta Gobernuko Lehendakariak bereena. Horregatik, lotu egiten natzaio eskubideari Mosquera jaunaren hitzak nereganatzen ditudan edo haren adierazpenak gaitzesten edo onartzen ditudan luzatzen zaizkidan galdera guztiak ez erantzuteko.

Iruñean, 1997ko martxoaren 20a

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

## Nafarroako ubideari buruzko galdera (bideragarritasun ekonomikoa, ur-horniduraren abantailak, etab.)

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Nafarroako ubideari (bideragarritasun ekonomikoa, ur-horniduraren abantailak, etab.) buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Itoitz-Nafarroako ubidea bikotearen gaineko hainbat daturi buruz. Hona erantzuna, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluaren eta hurrengoen babespean:

Obraren bideragarritasun ekonomikoari eta Nafarroari, ur-horniduran, uholdeei aurrea hartzean, ureztalurrak eraldatzean, aprobetxamendu hidroelektrikoetan eta herrietako giza-asentamentuetan ekarriko dizkion onurei buruzko lehen datuak Riegos de Navarra sozietatean daude.

Dokumentu mordoa dagoenez, egoki deritzot zuzenean Parlamentura ez bidaltzeari eta eskaera egin duen Parlamentari Taldearen esku jartzeari, aipatu sozietatearen egoitzan. Legegintzaldi honetan, UPNk Gobernuko Lehendakaritza eskuratu baino askoz lehenago ere hantxe zegoela gaineratu behar dut.

Iruñean, 1997ko martxoaren 20a

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

---

## Nafarroako Ondare Historiko eta Artistikoko ondasun higigarrien esleipen eta zaharberritzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak Nafarroako Ondare Historiko eta Artistikoko ondasun higigarrien esleipen eta zaharberritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 7ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ondare Historiko eta Artistikoko ondasun higigarrien esleipen eta zaharberritzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.a.- Artaxonako erretaula Iruñeko Katedralean da, ondare artistikoaren eliza-arduradunek hala erabakita.

b.- Zaharberritzeaz eta zaharberritzea esleitzeaz denaz bezainbatean, ez da inongo administrazio-izapiderik burutu.

c.- Esleipen horretarako aurreikusten diren irizpideak Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legekoak dira. Ondorioz, erretaula horren zaharberritzea Foru Administraziotik egiten baldin bada, ehuneko ehun, aipatu arauak ezarritakoari jarraiki egingo da eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta gero egingo da esleipena.

2.a.- Hona erantzuna:

"Jaun hori:

Irailaren 19an idatzi zenion eskabidea Vianako Printzea Erakundeari, zure ustez Lesakako erre-

taula zaharberritzerakoan izandako hainbat araugabekeria agerian utziz.

Izkribua ikusita, ustez araugabekeria zuten alderdiak aztertzeari ekin zaio, hots:

1.- Xilofagoen aurkako tratamendua.

2.- Polikromiak garbitzea.

3.- Urreztatuak garbitzea.

Xilofagoen aurkako tratamenduaz denaz bezainbatean, agerian geratu da aplikatu den tratamenduak ez duela arazoa konpondu, Estobium rufovillosum delakoak badiharduelako oraindik. Francisco Roldán jaunari galdetu eta ahoz erantzun du tratamendua gutxienez bi alditan eman behar dela, eta beste tratamendu bat egin behar dela, 1997ko udaberrian, alegia. Tratamendua egiteko hitza eman du.

Polikromien garbiketetan, berriz, haragi-koloreak hartu dira, alde batetik, eta gainerako polikromiak, bestetik.

Haragi-koloreetan, 1917ko birpinturak kendu dira hasieran zegoen geruza polikromoa agerian utziz, zeina, Francisco Roldán jaunak dioenaren arabera, ez baitzegoen ongi, biripintura egiterakoan kendu egin zutelako. Jarduketa horrek eragin zuen gaur egun duen ekortze-itxura.

Gainerako polikromietan, 1917an birpintatu gabeak, azaleko garbiketa egin dute. Badira puntu batzuk inongo garbiketarik gabeak, itxuraz, polikromatu gabeko aldeak direlako, eta prestatze-geruza agerian dutenak.

Zilarrek ageri duten beztura normaltzat jo daiteke, oxidazioaren ondorioz.

Urreztaduren garbiketaz, ostera, zikin-laginak atera ziren, eta Francisco Roldán jaunaren ustez denboraren eraginari zor zaizkio. Izan ere, Francisco Roldán jaunak antzeko zikin-laginak atera zituen alboetako erretauletatik, zaharberritzea bukatu berria bazuten ere.

Hori horrela, egurjaleen arazoa beste tratamendu batekin konpondu eta gero, Lesakako erretaularen zaharberritzea egokia izan dela jo daiteke. Edonola ere, kontrol zorrotzagoa ezarri beharko litzateke garbiketari buruz, urreztadurenari buruz, batez ere, zaharberritze-irizpideei dagokienez jokatzeko esparrua murriztuz, zaharberritzaile bakoitzak bereak izan ohi dituelako, azken finean.

Begirunez.”

b.- Aipatu irazkinek ez dute erantzunik merezi, 1996ko urtarrilean egin baitziren, artean Nafarroako Gobernuak inongo dirulaguntzarik eman ez zuela. Uler daiteke, beraz, aipatu egintzen erantzulea erretaularen titularra dela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 13a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

---

## UZEIrekin (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearekin) izenpetutako lankidetza-hitzarmenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak UZEIrekin (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearekin) izenpetutako lankidetza-hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 14ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak, idatziz erantzuteko galdera egin du, UZEIrekin izenpetutako lankidetza-hitzarmenari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Hitzarmenean agertzen dira zehatz-mehatz UZEIk bere gain hartu dituen betebeharrak, hirugarren puntuan: UZEIk bere gain hartzen dituen betebehar orokorrak. Hurrengoak sartzen dira: 3.1.- Aurrekontu, ekonomi eta finantza izaerako-

ak; 3.1.2.- Ekintzabidezko baldintzak zein materialak; eta 3.1.3. Bestelako betebeharrak.

Funtsean, hurrengoak sartzen dira: euskararen lexikologiaren arloko azterlan eta ikerlanak, Euskaltzaindiari emango zaion datu-base egokia prestatzeko, aipatu Akademiak Euskararen Hiztegi Arauemailea egin eta EUSKALTERM terminologi bankua garatu baino lehenagoko urrats gisa.

Dagokion urteko protokoloan zehazten da UZEIk 1997an burutu beharreko lanak. Laburbilduz:

a) Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EBBS).

b) Hiztegi batua.

c) Administrazio hiztegia.

d) Euskalterm.

Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikus 1997ko Protokoloko II. puntua.

B) Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen dituen betebeharrei buruz, hiru urteko indarraldia duen hitzarmena dugula esan behar (1997, 1998 eta 1999), hitzarmena izenpetzen duten erakundeetako aurrekontu orokorretan diru-izendapen nahikoa izatearen menpe, beti ere, eta indarraldia beste horrenbeste luzatu ahal izango da. Urte anitzetarako abiaburu-hitzarmena urtean urteko protokolo erantsiekin osatuko da, zeinetan hitzarmenkideek urte bakoitzean bete behar dituzten eginbeharrak zehaztuko diren.

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza osoaren % 12,315 emango du, gainerakoa Eusko Jaurlaritzari (% 73,891), Gipuzkoako Foru Aldundiari (% 12,315) eta Arabako Foru Diputazioari (% 1,477, hitzarmenkide berria) dagokielarik.

Era berean, Hitzarmenaren 6.7. baldintzak ezarri du erabakiak hartzeko, Nafarroako Gobernuko ordezkariaren botoak aldekoa izan beharko duela, beti ere. Haren interesak begiratu egiten dira, beraz, gerta daitekeen edozein ustekabe edo gorabeheraren aurrean.

Nafarroako Gobernuak UZEIri 1997an emango dion dirulaguntza 6.250.000 pta. da (1996ko berbera), aipatu urteko protokoloaren IV. puntuaren arabera. Ordainketa hurrengo kontusailaren kontura egingo da: 43200-4810-4551, 15030-5 lerroa, irabazasmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programetarako. Hitzarmenak indarra duen hurrengo urteetan (1997 eta 1998), dagokien aurrekontuetako kontusail berberari egotziko zaizkio gastuak.

3. Hurrengo dokumentuak eransten dira:

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta UZEIren arteko hitzarmena 97.03.07koa.

1997rako protokoloa, 1997ko martxoaren 7ko hitzarmenaren eraskina.

Azkenik aipatu behar da Nafarroako Gobernuak eta UZEIk hainbat urterako lankidetza-hitzarmena izenpetu zutela. Gero, UZEIk, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beste bat izenpetu zutela, 96.12.31 arte indarrean izan dena. Beraz, egungo hitzarmena UZEIk eta Nafarroako Gobernuak izenpetu ohi dituzten hitzarmen eta konpromezuen jarraipen eguneratu eta hobetua besterik ez da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 13a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu dokumentuak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

# Korrika 97ren antolatzeari Gobernuak ematen dion dirulaguntzari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Korrika 97ren antolatzeari Gobernuak ematen dion dirulaguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 14ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak, idatziz erantzuteko galdera egin du Korrika 97ren antolatzeari Gobernuak ematen dion dirulaguntzari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, 1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrean ez dago Korrika 97rako beren beregiko diru-izendapenik.

Orain egin da laguntzetarako urteroko deia

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 13a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

# Helduak alfabetatu eta euskalduntzeko ikastegi publikoen kostuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Helduak alfabetatu eta euskalduntzeko ikastegi publikoen kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 28ko 14. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak, idatziz erantzuteko galdera egin du Helduak alfabetatu eta euskalduntzeko ikastegi publikoen kostuari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- 1996rako jotako kostua Estatuko Administrazioko INAPekin 1997rako izenpetu lankidetza-hitzarmenarekin eguneratu ondoren, esan dezakegu orduko eta ikasleko kostua 300 pta. litzatekeela. Kopuru horren barruan sartzen dira irakasleen eta administrazio-langileen gastuak, baina ez Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari ez dagozkion gastu arruntak.

2.- Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi honen Euskalduntze Zentroan, azken bi ikasturteotan, euskalduntze-prozesuaren azken urratsak (11.a eta EGA) eman dituzten ikasleen batez-bestekoa 75 izan dela esan dezakegu.

3.- Eskari guztiak ez onartzeko arrazoiak hurrengo hiruretan laburbil daitezke:

a) Eskaria egiten duten ikasle guztiek ez dute euren zerbitzu eta administrazio-unitatearen derrigorrezko baimena lortzen, edota taldeetan tokirik ez denean eskuratzen dute.

b) Batzuetan ezinezko da ikaslearen mailari egokitzen zaion taldea, haren ordutegiarekin eta lan-egoerarekin uztar daitekeena, eratzea.

c) Ikastaro trinkoen 1, 2, 3 eta 4. mailatan, horietan eskaria handia denez eta taldeak bikoizteko aukerarik ez denez, ezin izan ditugu eskarigile batzuk onartu.

96-97 ikasturtean, 97 eskari geratu dira onartu gabe 1, 2, 3 eta 4. mailatan. Horietarik 34 (%35), ez dira onartu eskari gehiegi zegoen ikastaldeak ezin izan direlako bikoiztu; 45 (% 46) baimena garaiz ez emateagatik edo ez lortzeagatik; eta 18 (%19) uko egiteagatik, eskatutako ordutegia zuen talderik ezagatik, egunak aldatzeko lan arazoak izateagatik edo arazo pertsonalengatik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedatua betez.

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Liburutegi batzuk ixteko aurreikuspenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Liburutegi batzuk ixteko aurreikuspenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 28ko 14. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak liburutegi batzuk ixteko aurreikuspenari buruz eginiko galdera, idatzizko erantzuna eskatu duena, erantzuteko asmoz, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hau dio:

1. Ez dago Nafarroako Liburutegi Publikoen sareko liburutegi bakarra ere ixteko asmorik.

2.- Liburutegiko Arduradun izateko lanpostu betegabeak sortuz.

3.- Orain arte zenbat jende eta horrela jardun izan da liburutegiak ezartzerakoan. Horregatik, azken urte hauetan, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu ditu 2.000 baino gehiago bizilagun dituzten herrietan sorturiko liburutegietako langileak.

2.000 baino gutxiago bizilagun dituzten herrietan sortu diren liburutegiak liburutegi itundu edo lagunduen kategorian sartu dira.

4.- Hoberena izanen litzateke, azken hitza Nafarroako Gobernuak ez ezik aipatu diren komunitateetakoek ere badute ere.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluetan ezarririkoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

**I Saila:**
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

# 1997ko maiatzean egindako bilerak

### MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA

5, 12, 19, 21 eta 26an

### OSOKO BILKURA

14an:

– Errioxako Autonomi Elkartea, Nafarroako Foru Komunitatea eta Osasunaren Institutu Nazionalaren arteko hitzarmena, ospitale-larrialdiei errezziprozitate araubidean arreta egiteari buruzkoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nekazaritza Bermeko Espainiako Fondoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetza hitzarmena eztabaidatu eta bozkatzea. Belarkien eta nekazaritza sarien alorretako laguntzen Batasuneko araubidea kudeatu eta kontrolatzeko sistema ezartzeko Europako Batasunak ematen duen kofinantziazioari buruzkoa da hori.

– Reyes Cortaire Tirapu andreak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaiso psikiatrikoak integratzeko plana bidal dezan.

14an:

– Irurtzun-Altsasu autobia-Sakanako autobiaren obrei buruzko Ikerketa Batzordearen Irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

### NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA MENDI BATZORDEA

6an:

– Batzordeko Lehendakariordea izendatzea.

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariariaren agerraldia, 1997-1998 kanpainarako Espainiako ustiapen-eskualdetze planaren berri emateko.

13an:

– Lan-bilera. Bertan, “Promoción y Desarrollo de Empresas y Consorcios, S.A. (PRODESCON, S.A.)”ren Zuzendari Nagusi den Pedro Martos Gami jaunak esne-alorraren egoera orokorraren berri emango du.

13an:

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkeztu duen mozioa, Nafarroako Gobernua IPARLAT S.A.ren kapitalizazioan parte hartzera premiatzen duena, eztabaidatu eta bozkatzea. .

20an:

– Bozeramaleen Batzarrak eskaturik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren agerraldia, IPARLATen egoeraren ondorioen berri eman dezaten.

### LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

6an:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariariaren agerraldia, Hirigintza Araubidea eta Lurzoruaren Balorazioa Eraberritzeari buruzko 8/1990 Legeko hainbat artikulu deuseztzat jo duen Konstituzio Auzitegiaren epaiaren berri emateko.

13an:

– Lan bilera. Gorosti elkarte naturazaleak Lotzako putzuaren egoeraren berri emango du.

15ean:

– Lan bilera. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Lotzako putzuaren egoeraren berri eman dezan.

22an:

– Lan bilera. Iruñerriko Mankomunitatearen ordezkariak Ontziei buruzko Legearen ezarpenaren berri emango du.

23an:

– Nafarroako Etxebizitzari buruzko Plana (1997-2000) eztabaidatu eta bozkatzea.

28an:

– Lan bilera. Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak eta hark egoki iritzitako teknikariek Ontziei buruzko Legearen ezarpenaren berri emango dute.

29an:

– Lan bilera. Nafarroako Eraikitzaile eta Sustatzaileen Probintzi Elkarteko ordezkaritzak Etxebizitza Planaren berri emango du.

29an:

– Lan bilera. UGT, CCOO, ELA-STV eta LAB sindikatuen ordezkariek Etxebizitza Planaren berri emango dute.

30ean:

– Lan bilera. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkaritzak Etxebizitza Planaren berri emango du.

30ean:

– Lan bilera. Lotzako Kontseiluaren, larreak errentan dituen abeltzainaren eta Barrutiko Ehiztarien Elkartearen ordezkari banak Lotzako Putzuaren berri emango dute.

## GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEA

7an:

– Batzordeko Lehendakariordea izendatzea.

– Nafarroako Plan Gerontologikoa (1997-2000) eztabaidatu eta bozkatzea.

21ean:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, Perun eta Kolonbian finantzatutako lankide proiektuen berri eman dezan.

22an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, Plan Gerontologikoaren barruko “Etxebizitza” kapituluaren berri eman dezan.

22an:

– Osasun Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, Plan Gerontologikoaren barruko “Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuna”ren berri eman dezan.

27an:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, Kontuen Ganbarako Lehendakariaren agerraldia, Kontuen Ganbarak Elbarrien Programa-1995ari buruz emandako txostenaren berri emateko.

## OSASUN BATZORDEA

15ean:

– José Mª Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernua Bartzelonako mediku diren Gerrit Jan Bosma eta Rolin Julio Robles jaunentzako indultoa urgentziaz eskatzera premiatzen duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

## HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

27an:

– Lan bilera. “Fundación Laboral de la Construcción” delakoaren Nafarroako Lurralde Kontseiluko ordezkariek haien proiektuen berri emango dute.

28an:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, eskolako testu-liburuen berri emateko.

29an:

– Lan bilera. Helduen euskalduntzerako IKA eta AEK taldeetako ordezkariek ordezkariek gaueskolek dituzten beharrizanen berri emango dute.

# Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko maiatzean sartu diren agirien zerrenda

**2a:**

– Azkoiengo saihesbide berria esleitzeko eta eraikitzeko prozesuari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Olagueko saihesbidea eraikitzeko proiektuaren ingurugiro eraginaren gaineko azterketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Herrietako DBH ikastetxeetan Bigarren Irakaskuntzako lau ikasturteen eskaintzari buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina.

– Errioxako Autonomi Elkartearekin eta Insaludekin izenpetzeko lankidetza-hitzarmen proiektuari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina .

– UGT sindikatuak Iparlaten duen sailaren idazkia, eurek Iruñeko Iparlat lantegiari buruz duten jarreraren gainean.

**5a:**

– Mozioa, Nafarroako Gobernua Iparlat S.A.ren kapitalizazioan parte hartzera premiatzen duena, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Talde baztertuak kudeatzen dituzten enpresekin izenpeturiko hitzarmenei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak lan bilera egin dezala Alesbesko Udalarekin, Ureztatze Sindikatuarekin eta Morante S.A.T.ekin, Alesbesko LAS NAVASen izandako uholdearen arazoa erabiltzeko.

– Francisco Jesús De Luis Call jaunaren idazkia. Hauxe eskatu dio Giza Eskubideen Batzordeari: bere atxiloketa eta espetxeratze prebentiboa zehatz-mehatz azter ditzala.

– Cortes ondoko Gallurren hondakin likido pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen ingurugiro eraginari buruzko galdera, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak egina.

– Cortes ondoko Gallurren hondakin likido pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen osasun-ondorioei buruzko galdera, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak egina .

**6a:**

– Mozioa, Nafarroako Gobernua naturgune eta habitatei buruzko plana egitera premiatzen duena, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak nekazaritzarako ibilgailu parkeari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Tutera-Madril autopistaren eraikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, 2.000.000 pezeta jotzen duen kreditutransferentzia egiteko erabakia.

– Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena lurzoruaren eta lanbide-elkargoen arloan neurri askatzaileak ezartzeari buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legeko hainbat xedapenen aurka konstituziokontrakotasun errekurtsoa ezartzera, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak hurrengoari buruzko informazioa eman dezan: Europako Batasunak Itoizko urtegiari eta Nafarroako ubideari buruz emandako iradokizunak betetzeko burutzen ari diren neurriei.

– Elbarriei arreta egiten dien itunpeko zentroen jarraipenari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina.

– Gobernuak Foru-bilduma eskubide juridiko, sozial eta abarrei dagokienean aldatzeko asmoa oten duen jakiteko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina.

– “Nekazaritza ustiategien eraginkortasuna hobetzea” lerroaren aurrekontu-burutzeari buruzko galdera, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Jabetza birrantolatzeko obrak, lurzati kontzentrazioa” izeneko 97030-2 eta 97009-4 lerroen aurrekontu-burutzeari buruzko galdera, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– Ureztalur berriak sortzeko aurrekontu-programazioari buruzko galdera, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– Herri-larreak sortzeko dirulaguntzak emateko 97047-7 eta 97066-3 lerroen aurrekontu-burutzeari buruzko galdera, Andres Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– Toki entitateekiko euskararen normalkuntzarako hitzarmen berrituari buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari jaunak egina.

– Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Lehendakaritza Departamentuko aholkularitza juridikoak idatzitako txostena, Iruñeko Udalak kablearen lurralde-barrutia onartzeko duen eskumenari buruz.

– Fiteroko monastegiko liburutegi zaharraren hondamenari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina .

– Kamioiak jaiegunetan ibiltzeari buruzko neurriak hartzeari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina.

– Otsagabia eta Erronkariko naturaren interpretazio zentroen kudeaketari buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina.

– Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Kontuen Ganbarako Lehendakaria Gizarte Gaietako Batzordean ager dadila, Elbarriak-1995 programari buruz emandako Txostenaren berri eman dezan.

– Mozioa, Nafarroako Gobernua Bartzelonako mediku diren Guerrit Jan Bosma eta Rolin Julio Robles jaunentzako indultoa berehala eskatzera premiatzen duena, Jose Mª Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak aurkeztua

– Alzheimer-ak jotako pertsonei arreta egiteko aurreikusi diren neurriei buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina.

– Emakumearen Osasun Laguntzarako Plana egiteari buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Ospitaleko larrialdi-kirofanoen erabilgarritasunari buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina.

– Osasun Departamentuaren argitalpenei buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Zuzendari Nagusiaren Ebazpena, “Inbertsioen azterketak eta plangintza” izeneko 10 zenbakiko Programaren kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

– Sarriako Jaurerrian dagoen ehiza-hesiari buruzko galdera, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak egina.

**7a:**

– Sarriako Jaurerriko ehiza-barrutia isteari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Mª Izaskun Amaia Mitxelena Enbil andrea Kontuen Ganbararen zerbitzuko administrari izendatzea.

– Nafarroako Ekonomi Kontu Urterokoak egiteari buruzko galdera, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Transkriptoreen Kidegoak egindako idazkia. Hauxe eskatu dute: lanpostu-osagarria Administrarien Kidegoan dutenarekin parekatzea.

– Mozioa, Nafarroako Gobernua Iruñeko Udalarekiko hiriburutasun-gutunari buruzko elkarrizketei berriro ekitera premiatzen duena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Osasun Sistema Nazionala kudeatzeko modu berriak gaitzeari buruzko apirilaren 25eko 15/1997 Legearen aurka konstituziokontrakotasun errekurtsoa ezartzera, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Eusko Alkartasuna-Askotariko eta "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeek idazkia aurkeztu dute eta hauxe eskatu: Hezkuntza eta Kultura Batzordearen lan-bilera egitea, helduen euskalduntzean ari diren IKA eta AEK taldeen ordezkariek gau eskolek dituzten beharrizanen berri eman dezaten.

**8a:**

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldearen idazkia. Hurrengoen aurkako konstituziokontrakotasun errekurtsoa aurkezteko erabaki-proposamena aurkeztu du: Lurzoruaren eta lanbide-elkargoen arloan neurri askatzaileak

ezartzeari buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legeko hainbat xedapenen aurka eta Osasun Sistema Nazionala kudeatzeko modu berriak gaitzeari buruzko apirilaren 25eko 15/1997 Legeko hainbat xedapenen aurka, Nafarroako Foru Komunitateak bere burua administrazioaren aldetik antolatzeko duen ahalmena hautsi egiten dutelako.

– Mª Isabel Arboniés Bermejo andreak idazkia aurkeztu du eta hauxe eskatu: Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria dagokion Batzordearen aurrean agertzea Plan Gerontologikoaren barruko “Etxebizitza” kapituluaren berri eman dezan.

– Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak idazkia aurkeztu du eta hauxe eskatu: Osasun Kontseilaria dagokion Batzordearen aurrean agertzea, Plan Gerontologikoaren barruko "Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuna"ren berri eman dezan.

– Etxarriko Udalaren idazkia, hauxe jakinarazteko: Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen izkribua jaso duela, izkribu horretan aipatu Taldeak gaztigatzen zion Nafarroako 1997ko Aurrekontu Orokorrei osoko emendakina aurkeztu ziela, baina ez ziotela onartu, eta, era berean, salatu egiten zuen UPNk eta PSOEk hitzarmena sinatu dutela zatiko emendakinak onartzea galarazteko.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Gizarte Ongizate Kontseilariak Peru eta Kolonbiako lankidetza-proiektuetara egin duen bisitari buruzko informazio gehiago ematea Gizarte Gaietako Batzordean egingo duen agerraldian.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Itoizko urtegiko eta Nafarroako ubideko konponbide juridikoak eta finantzaketa konpromezuak aztertzeko Nafarroaren eta Estatuaren arteko Batzorde Parekideari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Tafallako belodromoa estaltzeko finantzaketari buruz egindako galderaren erantzuna.

**9a:**

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: “Sarriako Jauregia” NA-10.045 ehiza-barrutiaren espediente osoaren eta horri buruzko administrazio-izapide guztien gaineko informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Administrazio Auzitegiaren aurrean aurkeztu diren eta ebatzeke dauden gorako errekurtsoei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak argitaratzen dituen argitaldariei buruz egindako galderaren erantzuna.

